M Caja 2-20
VMSS_68

1ª

Quadraguime

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

DIPUTACION DE VIZCAYA - BIBLIOTECA -

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

N. A.

Cristau gueciac jaquin eta comprenditu bear dutena, salvacioa irichi nay
badute, da Sacramentu Santuen doctrina, eta orregaitic igarotcen naiz au-
ben esplicacioa zuei aditcera ematera: Sacramentu Santuen doctrina ondo
jaquin eta comprenditceco degun obligacioaren gañean gu convencitceco,
Trentoco Concilio Santuaren Catecismoac esaten digu, Doctrinaco lau par-
teac Cristau gueciac ondo jaquin eta comprenditu bear badituguere, Sacramen-
tu Santuen gañeraco laugarren onec escatcen duela Maisuagandic em-
peñu particular bat iracustean, eta aditzalleagandic icastean eta com-
prenditcean, ez bacarric Sacramentu gueciai comunqueiro dagoquien
doctrina, baicican baita ere Sacramentu bacoitzac Sacramentu au er-
recibitu bear duenagandic escatcen duen dispocicioa, Sacramentu baco-
itzaren efecto edo frutuac, eta Elisa ama santac Sacramentuac egui-
teco eta bere Semeai emateco icentatcen dituan ceremonia sagradu-
ac; au guecia ezagutu, icasi, eta comprenditurie guertatu gaitean
bear becela oec errecibitceco, eta Sacramentuac escatcen duten onelaco
guertaera errespeto eta devocioarequin errecibituric, atera ditzaguin
oetatic fruturic ugarienac; eta gueyago gai onen gañean convencitu
gaitean esaten digu Catecismo onen berac laugarren doctrinaco
partean, gue jaquin eta comprenditcea dala Jaungoicuac Cristau
gueciai ifinico aguintea, eta aguinte onegandic sortcen zaizquigun
utilidadeac guretzat prochu andicoac, eta arrazoyarequin au Cate-
cismuac esaten digu, bada Trentoco Conciliuac dion becela, eztago
virtuteric, eztago justificacioric Sacramentu Santuen medioz
baicic; eta ala graciaren estaduan anima ifinteco, gracia au ani-
man mantentcea, eta pecatuagaitic gracia galdu badegu gracia au

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

berriro animari biurtcea da Sacramentuen medioz Jaungoicuac e-
guioten diguen paregabeco mesedea. ¿Eta cer besteric bear degu guraso
eta familiaco buruac, guc gueroc aurrenengo exemplo ematen degu-
la, gure familiacuac Sacramentuac errecibitcera sarri bialtceco?

Sacramentuen esplicacioaren asieran doctrinaco liburuac esaten du: zazpi
Sacramentuetatic lendabicico bostac dirala necesarioac, obraz edo deseoz er-
recibitu bear diranac, eta ecin salva ditequeala guizona desprecioz erreci-
bitu gabe uzten baditu, beste biac vorundatezcuac dirala: bay Cristauac,
necesarioac dirade bozt aurrenengo Sacramentuac edadea eta disposi
cioa duten Cristau guciențzat, baña oec errecibitceco degun obligacioa
ezda berdiña, bada batayatu gabe arquitcen diranentzat, bautismo
Santua, eta bautismo Santua errecibitu ezquero pecatu mortalean erori
diranentzat, penitencia, dirade premia ain andicoac, non Sacramen
oec obraz edo deseoz errecibitu gabe ezdu iñorc cer pensatu salva-
cioric consequitzia; ain estua ezpada ere Comunio Santua errecibitceco de-
gun obligacioa, premia andicua da, bada Jesucristoc berac eta Elisa ama
Santac Sacramentu au dempora icentatuetan errecibitceco aguintcen
digute; Confirmacio eta Estrema-uncioa errecibitu al diterqueala ez
errecibitcearequin eguiten zayen menosprecioagaitic, eta menosprecio
onequin eguiten dan pecatu mortalagaitic, necesario edo premiaz-
coac dirade ere: orain bada doctrinaco liburuac esaten du zazpi Sa-
cramentuetatic aurrenengo bostac dirala necesarioac, eta beste biac
vorundatezcuac, bada ondo daquizuten becela, iñorc ezdu escondua edo
ordendua izateco obligacioric; baña nola Eliza gueitcen dan Matri-
monioaren medioz, eta ordenazco Sacramentuaren vitartez Eliza
gobernatceco bearrac diran Ministro eta Sacerdoteac eguiten dirian,

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

Cristau bacoitzac Sacramentu oec errecibitceco premiaric ezpadu ere, Eliza gucientzat chit bearrac dira; eta iñorc au dudatu ez dezan doctrina au fedecotzat erabagui zuen Trentoco Conciliuac itz oetan = Baldin iñorc esaten badu legue berrico Sacramentuac ez dirala betico osasuna iristeco bearrac, baicican alperrac, eta oec obraz edo deseoz errecibitu gabe fede bacarraren medioz betico osasun au consequitu ditequeala justificacioco gracien medioz, Sacramentu guciac Cristau gucientzat premiazcoac ez padira ere, izan dedilla Escomulgatua.

Onela Sacramentuac errecibitceco necesidadea eman ondoren dio Doctrinaco cartillac, Sacramentuac dirala señale batzuec instituitu edo eguin cituenac Jesucristo gure Jaunac emateco guri oequin bere gracia eta virtuteac, edo claruago nai badeute; Sacramentuac dira, señale icusgarri edo aguiri batzuec Jesucristo gure Jaunac ifini cituenac, artaraco escubidea edo potestadea duten Ministroac aplicatu ditzaten guizonai itz icentatu batzuequin indar eta virtute ain andicuac, nun señale oequin batean sortcen dute guizonagan gracia santuaren doay miragarria. Emendic aguiri da Jesucristo gure Jauna Jaungoico eta guizon eguiazcua, dala Sacramentuen fundatzallea, ceiñaren eriotza eta pasio Santuaren merecimentu neurrigabeac dacarde Sacramentuac duten indar eta virtute gucia: Eta ala galdeturic S.n Ambrosioc ein dan Sacramentuen fundatzallea, berac errespuesta ematen du esanaz; fundatzalle au dala gure Redentorea, cergaitic nola Jaungoicotasunarena dan bacarric guizon gaiztoa ona izatera biurtcea eta au eguiten dan Sa-

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

cramentuen medioz, eta nola oec au eguiteco duten indar eta virtutea dacarden Jesucristoren pasioco merituetatic, preciso berac izan bear du ere Sacramentuen fundatzallea; eta ala fedeco bzat erabaqui zuen Trentoco Conciliuac doctrina au itz oetan = Norbaitec esango balu leque berrico Sacramentuac ez dirala Jesucristoc fundatuac; izan dedilla Escomulgatua.

Baño ain premia eta prochu andicuac diran Sacramentu Santuac erraz edo ceñec erreciibitceco proporcina iduqui dezan, disponitu zuen Jesuchristoren guganaco amoriv paregabeac, Sacramentuen emalleac izan citecela Apostoluac, eta oen ondorengo artaraco potestadea eman cien berte Elizaco Ministruac, ceiñac Jesucristoren icenean ematen eta eguiten dituzte Sacramentuac, alaco moduan cer ecin imagiña ditequean gaistoenac balira ere, Elizac oec eguiteco eta emateco icentatcen ditican condicio eta circunstanciac gordetcen baditzate, eguingo luque onetan sacrilegioco pecatu izugarria, baña Sacramentuac erreciibitcen dituenac frutu onac logratuco lituzque, berac bere aldetic bere disposicio charragaitic traba edo impedimenturic ifinico ezpalu. Consideratu ezazute emen Jesucristo gure Jaunaren guganaco amoriv paregabea! Baña Jesucristaren guganaco amorio au nun iñun baño obeto aguiri dan, da nere iritzian Sacramentuac ifinteco Jaun onec iduqui zuen motivuan, bada motivo au gogoratcea deritzat arco dala humillaturic guizona aimbesteraiñoco amorina aguertcen dion Jaungoicuaren aurrean, biotzeco graciaric ugarienac ematean bere vicitza guzia empleatu dezan

Ifini cituan bada Jesucristo gure Jaunac Sacramentu Santuac, guizo-

3

naren entendimentu labur eta argalac espiritualac ciran gauzac ezagutu eta comprenditcera igo ecin cezaquealaco, sentiduaquin icusten dituen gaucen medioz ezpada, eta argaitic eman cizquigun Sacramentuba tzuec sentiduaquin icusten, aditcen, eta icutcen diranac, señale oen medioz igo dezan gure espiritu ac oequin ematen zaizquigun gracia eta doayen ezaguerara, ala dio S.^n Juan Crisostomoc = Espiritu purua bacina guizona dio Santu onec, espiritualac alde gucietatic diran gracia eta doyac emango cizquizun Jaungoicuac, baña nola espiritua dan zure corputzarequin alcartua dezun anima, ematen dizquizubay Jaungoicuac gracia eta doay espiritual oec, baña aguiri diran señale batzuequin estaliac; quentceco onela gure entendimentuac iduqui cezaquean duda bere Divina Magestadeac eguiten dizquigun esquiñiac sinistean, eta ala utci nai cizquigun Sacramentuetan señale batzuec izan citecen esquiñi dizquigun gaucen prenda seguruac.

Ifini cituan Jesucristoc Sacramentuac, dio S.^n Ambrosio andiac, iduqui cezan guizonac bere estuetan bere animari osasuna ematico, eta osasun au animan mantentceco erremedioric eficacena berac nai zuenean erremedio oequin valiatu cedin, bada oen socorru gabe, ¿Nola zan posible guizonarentzat Jesuchristoren pasio eta eriotzaco merecimentuetan parte iduquitceo? Nola zan posible guizonarentzat, edo inocencian vici izateo, edo inocencia galduric berriz inocencia au bereganatceo? Ifini cituan cergaitic gure naturaleza argalaren premietara bere pausuac zucendu nai izan zuan Jaungoicuac, ez bacarric, fede, esperanza, eta caridadearen medioz berarequin alcartu guindecela, baicican baita eri ... al-

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

cartu citzcela eren artean guizonac Eliza baten miembruac becela, aguiri diran señale batzuequin: señale oec dirade Sacramentuac, ceñaquin siñuste batecs guizonac aguiri diran lazo oequin berriro alcarrequin lotutcen gueran Elizac deritzan corputz aguiri bat eguiten degula.

Ifini cituan Jesucristoc Sacramentuac, oec errecibitceárequin confesatu eta publicatu dezaguin gure fedea guizonen artean, confesatu eta ezagutu gaitzan guero Jesuchristoc gu bere semeltzat bere aitaren aurrean, fundatu cituan oen medioz piztu cedin gure fedea, eta iracequi cedin gure alcarreganaco amorina, corputz baten parteac ceñaren burua dan Jesucristo, Cristau gueciac gueran becela, eta ifini cituan azquenic Adan inocentearen obediencia provatu zuen becela, provatceco ere onela gurea, eracutsi eta aguintceárequin guri Sacramentuen medioz eta ez gure antojuzo billatu bear degula Jaungoicua: Oec dira Jesucristoc Sacramentuac ifinteco iduqui cituan motivuac, gueciac gure oneraco, gueciac guganaco amorinagandic sortuac, gueciac gu betico zorioneccuac eguiteco bere viotzbiguiin eta gozoagandic jatorria dutenac: Zorioneccua oequin aprovechatcen dan guizona! ¿Baña consideratuco ote ditugu motivo onec bear dan becela? Ah! Motivo onec bear becela consideratuco baguinduzque fede vici errespeto eta modestia andiaguarequin oetara allegatuco guiñateque; sarriyago Sacramentu Santuen iturrian gure animac garbitcera etorrico guiñateque.

Baña ez dezaguin pensatu, nere Aditzalleac, Sacramentu Santuac sarri errecibitcean daguala bacarric gure zoriona, utza valio du sarri Sacramentuac errecibitceac ondo disponituric errecibitcen ez paditugu, ez gaitu salvatuco sarri errecibitceac, frutuarequin errecibitceac bai

© Bizkaiko Foru Liburutegia

cic; baña orregaitican ere sarri errecibitcea procuratu bear degu, bada

iñoro ecin ucatu dezaquean gauza da, sarri errecibitceac disponitcen

gaituala ondo errecibitcera, nequez ondo errecibitcen dituen becela

guchitan oetara allegatcen danac. Alleguiña eguin bear degu bada

Sacramentuac sarri errecibitceco, eta gure aguintearen azpian dau-

denac sarri oetara biraltceco, baña biraldu baño lenago eracutsi

bear diegu lenago artaraco bear dan guertaera, ez guera onetaraco

contentatu bear itceco doctrina puzca bat oei eracustearequin ba-

carric, empeñu artu bear degu ere buruetan sartzean, beren vis-

tcetan itzartean, bear becela Sacramentuac errecibitceco eraman

bear dituen disposicio guciac, logratu ditzaten onela oen efecto eta

fructuric ugarienac.

Sacramentuen artean aurrenengua da, apreciagarri eta miragarri ura, ceña-

ren medioz quentcen dan Adanegandic eredatu guenduan pecatu originala,

eta beste edocein pecatu bera errecibitcen duenagan arquitcen bada, eta

pecaturic ezpadu errecibitcen duenac, gueitcen dio animan gracia Santua:

ala eracusten digu S.^n Agustinec esanaz; batayatcen danagan botatcen da

ura, eta esaten dira Sacramentuari datorquion itzac, eta une artan ber-

tan garbitcen da bere anima pecatuetatic, eta orobat quertatcen da

beste Sacramentuaquin, eta ala guciagaitic fedecotzat erabaqui zuen

Trentoco Conciliuac esanaz: = Fedeco eguia dala Sacramentu guciac

dutela virtutea, indarra, eta eficacia significatcen duten gracia ema-

teco; eta ematen diela gracia au errecibitcen dituenari onec bere aldetic

Sacramentuari embarazuric ifinte ezpadio. Ain erraz onelaco

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

mesedeac conseguitu dezaguezun Cristaua, Jaungoicuaren enemigotic bere adizquide izatera, Demoniuaren mendetic Jaungoicuaren semea izatera, eta infernuaren merecitzalleagandic ceruco eredera izatera, aiñ erraz biurtu cindezquean guizona? Nola izan cindezque aiñ otza eta naguia Sacramentu Santuac sarri errecibitcera etortcean? Nola aiñ ardura gabea Sacramentuac frutuarequin errecibitceco ondo disponitcean?

¿ Cer importa da nere Aditzalleac, izatea Sacramentuac gure animaco gaitz gucien erremediuac, Jesucristo gure Jaunaren pasioco merecimentuen depositoac, gure Redemptorearen neurrigabeco misericordiaren iturriac, gure animac garbitceco premiazcoac diran doayarequin beteac, sec errecibitcera ez etortcearequin, edo gaizqui errecibitcearequin alperrac, frutu gabeac, eta caltegarriac biurtcen badigu? Sacramentu Santuac errecibitu ezquero len becein argalac, pecaturaco len becein errezac, oitura gaiztoetara len becein usatuac, eta genero guztietaco gaiztaquerian sartuac queratcen baguera, gracia, virtute, eta devocioaren antcic ez degula? Eta ceinbaitegan gure desgraciaz au guertatcen da? Eta izango da erremedio gabea Cristau geyenetan gaurco egunean icusten dan llaga icaragarri au? Ez Cristauac, Sacramentuac betac sendatuco dizue, orc gaizqui errecibitcearequin errayetaraño irigui dezuten llaga, berriro

ondo quertaturic errecibitcen badituzute, allegatu zaitezte bada eme-
ndic aurrera fede vici, eta errespeto andiarequin octara, allegatu zaitezte erre-
verencia, devocio, eta amorioz beteric, allegatu zaitezte Sacra-
mentuac errecibitcen duenagan escatcen duen quertaera eta dis-
posicioarequin, onela pecatu guztietatic zuen animac garbitu
ditean, apaindu ditean virtuteen trage ederraquin mundu-
onetan, guero merecí dezazuen Jaungoicua eternidade gucian
gozatcea: deseatan dizuedan becela, Aitaren &ª.

@ Bizkaiko Foru Liburutegia

@ Bizkaiko Foru Liburutegia